

**Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala****109. zenbakia****Data 2013-06-10****78 orria**

---

**7 Udal Administrazioa**  
**BEIZAMAKO UDALA**  
**2/2013 kreditu aldaketa.**

---

BEIZAMAKO UDALA

Iragarkia

Udalbatzak, 2012ko azaroaren 14an eginiko bileran, hasiera batez onartu du 2012/3 zk.a duen Kreditu Aldaketarako Espedientea, Beizamako Udalaren 2012ko Aurrekontuaren barruan.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko, abenduaren 19ko 2003/21 Foru Arauaren 34.3.artikuluan xedatutakoa betez, aipatu espedientea jendeari erakusten zaio, ondorengo arau hauen arabera:

- a) *Erakutsita dagoen lekua*: Idazkaritza-Kontuhartzaitza.
- b) *Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea*: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita.
- c) *Honako hauek erreklamazioak jar ditzakete*: 2003/21 Foru Arauaren 17.1 artikuluan aipatzen diren interesatuek eta erabakiaren aurka bozkatu duten korporaziokideek.
- d) *Inpugnatzeko arrazoiak*: Aipatu Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak eta ordenamendu juridikoa urratzea.
- e) *Aurkezteko bulegoa*: Udaletxeko Sarrera Erregistro Orokorrean.
- f) *Erreklamazioak jasotzen dituen organoa*: Udalbatza.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharpenik jaso gabe, kreditu aldeketarako espedientea onartutzat joko da behin-betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

**Beizama**, 2013ko maiatzaren 29a.—Begoña Garmendia Vazquez, Alkatea. (5675)